



Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea

Zoriontasunaren iruzurra

Jarri ezazu arreta zure buruan, eta zure ametsa gaur hasiko da; horretarako nauzu hemen, zure esanetara beti, laguntzeko prest. Askotarikoak dira nik har ditzakendak izaerak: autolaguntza liburua, *coach* pertsonala, motibatze pertsonalerako lantegia, edota zure erronketan murgiltzeko *à la carte* asteburua. Zeinahi hautatutako formatua, jada antzezman dituzu gaurtik hasita epe laburrerako nirvana horretan dirdiratu diren sententzio goxoak, hitz neurrikoak, ekintza adimentsuak. Bai, dana izango duzu hor, zure muturraren aurrean, baldin eta zure burmuinean tekla halabeharrezkoa sakatzaren baduzu. Klik! Halaxe da, azkenean ulertu duzu mezua: zure zoriona zure esku dago. Beste inon ez. Sartu ezazu hori buruan, faborez, inportantea da; iltzatu tinko ardura hori kaskoan, eta gainontzekoa fin-fin doituko da. Egidazu kasu.



Zoriona zure esku dago. Beste inon ez. GAUR8

Hala dio, Sara Ahmed idazleak bere "La promesa de la felicidad" liburuan. Ahmeden hitzetan, «zoriontasuna, modu jakin batean bizitzeko promesa gisa, pertsonak zuzentzeko

Beraz, arestian iltzatutakoari iltze indibidualistak kendu eta goazen pentsatzera hobe genukeela abiaraztea ororen ongizatea bermatuko luketen sentimendu, pentsamendu eta ekintzak. •